

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren izena **EKOZIKLETA** da. Gaur egungo larrialdi klimatikoa dela eta, enpresak salduko dituen produktuak bizikleta elektrikoak izango dira. Baina betiko bizikleta elektrikoak ez izateko, zenbait hobekuntza egingo ditugu; gurpiletan eguzki panelak ezarriko ditugu energia argitik lortzeko eta gurpilek mugimenduarekin energia sortzeko ahalmena izango dute. Gure diseinuan ere, atera ahalko den bateria jarriko dugu, bateria portatil moduko bat, horrela sortutako energia beste erabilera batzuetan erabili ahalko dugu.

Bestalde, bizikleten osagarriak, material birziklatuekin, salduko ditugu (zelak, argiak, giltzarrapoak...)

Gure helburu nagusia, ingurumenarekin konpromiso hartzea eta energia berriztagarriak sustatzea da.

Hau izango da gure enpresaren logoa
eta izena: **EKOZIKLETA**

